



Espediente zk./Nº Expediente: 2021SZUZ0010 Erreg. data/Fecha Reg:  
Erreg. zk. / Nº Registro: 000000  
Gaia/Asunto: OINHERRI - HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO PROIEKTUA  
Eskatzailea/Solicitante: OINHERRI NAN(IFK)/DNI(NIF): G75237701  
Kokalekua/Emplazamiento: ERRENTERIA

## ZUZENENKO DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA EMATEKO HITZARMENA

Errenteria, sinaduran agertzen den datan.

### BILDU DIRA

Batetik, Itziar OSTOLAZA GALDOS anderea, Errenteriako Udaleko Hezkuntza Zinegotzi Delegatu bezala.

Bestetik, Amaia ETXABE GOIKOETXEA, NAN: duena.

### PARTE HARTZEN DUTE:

Lehenengoak Errenteriako Udalaren izenean, Tokiko Araubidearen oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legean emandako eskumenez baliaturik, Alkateak eginiko eskuordetzeari jarraiki, 2729 zk.ko Dekretuaren bidez, 2019ko ekainaren 17koa.

Bigarrenak OINHERRI ELKARTEA ren ordezkartzan, IFZ: G-75237701 duena, eta helbidea: Nafarroa etorbidea 23, 1, 20500 Arrasate

Bi aldeek elkarri nahiko gaitasuna aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako

### AZALTZEN DUTE:

I.- 2016an sortua den Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko Elkartearen estatutu-helburua da zazpi kontzeptutan garatzen den aisia-eredu berritzailea garatzea. Zazpi eremu horiek elkarrekin lotzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek+ halaberrez elkarrekin joan behar dute: Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei euren komunitatea eta herria hobetzeko proiektu eta ekimenetan benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdín eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

Euskadiko Elkartek arautzen dituen ekainaren 22ko 7/2007. Legearen arabera, Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkarteak irabazteko asmorik gabeko erakundea da.

II.- Bete jardueren artean, Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkarteak Errenteriako herrian eragina izan zuen



Oarsoirriak ekimenean parte hartu zuen.

Errenteria balio hezitzaileen eremu moduan sustatu nahi du Udalak, eta ondorioz herri hezitzaileen egitasmoa interes handikoa dela ikusten da; izan ere, ulertzen du hezkuntza, familiarik eta eskolatik harago luzatzen dela eta ez dela haurtzaroan hasi eta haurtzaroan bukatzen den prozesua.

Hitzarmen honekin egiteko modu parte-hartzaile horien ezagueran eta hedapenean sakontzen jarraitu nahi da eta denon ongizatea bermatuko duen herri hezitzaile bat eraikitzen jarraitu. Horretarako, Oinherri zenbait proiektu eta hedapen-lan aurreikusi ditu.

III.- Oinherri Elkarteak hainbat ekimen gauzatuko ditu:

Hitzaldi irekiak herrian, herri hezitzailearen filosofia eta berau egituratzen den 7 giltzarrien inguruko lanketa pedagogikoa egiteko.

Eskola kirolari buruzko hausnarketa jarduerak.

Herri bat hezkuntzatik eraikitzen jardunaldia: Ikastetxeen arteko orain arteko harreman eza gainditu eta herri mailako hezkuntza proiektu integralak garatzeko eredu ezberdinak ezagutzeko jarduerak, herri hezitzailearen filosofiaren aterkipean gure herriak hezkuntzatik eraikitzeko apustu kolektiboa mahai gainean jarriz.

IV.- 2021eko ekainaren 1eko Hezkuntza azpisaileko Zinegotzi Ordezkararen Dekretu bidez erabaki da Oinherri Elkarteari ematea zuzeneko dirulaguntza nominatiboa. Horretarako oinarritzat hartu da honako arauetan ezarritakoa:

- Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 11.1.a) artikulua (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-) -aurrerantzean, Ordenantza-

- azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) art. -aurrerantzean, Legea-

Azaldutakoaren arabera Errenteriako Udalak eta Oinherri Elkarteak adostu dute hitzarmena sinatzea. Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldeen konpromisoak dirulaguntza ematea burutu dadin.

## KLAUSULAK

### Lehengoa: Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da aldeen eskubide eta betebeharrak finkatzea, 2021eko ekainaren 1eko dekretuaren bidez emaniko dirulaguntzarekiko. Dirulaguntza horren xedea da 2021 ikasterterako Errenteria Herri Hezitzailea izenburuko proiektuak finantzatzea.

### Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa

Dirulaguntzaren gehieneko diru-kopurua 6000,00 eurokoa izango da, aurrekontuko 1 0630.481.02.326.20 partidaren kontura. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da Errenteriako Udalaren Aurrekontu Orokorrean 2021 urterako



**Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena**

Lankidetzaz hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean eta 2021ko abenduaren 31an amaituko da.

**Laugarrena: Errenteriako Udalaren konpromisoak**

Hitzarmen honi jarraiki Errenteriako Udalak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) 6.000,00 euroko dirulaguntza ordainduko da, eta era honetan:

% 80, 4.800,00 euro, hilabeteko epean hitzarmena sinatzen denetik.

% 20, 1.200,00 euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren.

b) Errenteriako Udalak aipatutako jarduerak garatzeko udal eraikinak erabiltzeko aukera emango dio Oinherri.

c) Errenteriako Udalak aipatutako jarduerak bere komunikabideen bidez ezagutzera emateko konpromisoa hartzen du.

**Bosgarrena: Diru-laguntzaren entitate/pertsona onuradunak harturiko konpromisoak.**

Hitzarmen honi jarraiki dirulaguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) Errenteria herri hezitzaile moduan sustatzeko jarduerak burutuko ditu aurkezturiko dokumentazioaren arabera eta Errenteriako berezitasunetara egokituz. Proiektua hitzarmen honekin batera doa eranskin gisa, eta aurreikusiriko epean gauzatu da. Horretarako Oinherri elkarteak Errenteriako hezkuntza formal zein ez formaleko eta herrigintzako eragileekin harremanak izateko konpromisoa hartzen du.

Proiektuan aurreikusitako jardueraren bat ezin bada egikaritu ez datorrelako bat COVID19arekin kutsatzeak ekiditeko indarrean dagoen araudiarekin, onuradunak jarduera araudi horretara egokitu beharko du edo atzeratu. Ezin izatekotan, jarduera ez da gauzatu.

b) Euskal Herri mailako herri hezitzaileen sarearen jakintza kolektiboa eta esperientziak Errenteriako Udalarekin partekatzeko konpromisoa hartzen du, proiektuen garapenean zehar emango dena.

c) Beharrezko diren udal baimenak edo bestelakoak eskatu beharko ditu.

d) Ordenantzaren 21. artikuluan eta Legearen 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

- Dirulaguntza eman duen erakundearen justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta dirulaguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.

- Beste dirulaguntza batzuk jasotzen baditu dirulaguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinarazi beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla



justifikatu aurretik.

- Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.

- Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.

- Jasotako diru-kopuruaren aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.

e) Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.

f) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak: dirulaguntzaren entitate onuradunak dirulaguntza bidez egintzako ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.

Idatzari dagokionez:

-Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Udalarekin alde aurretik adostuta.

Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jartzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharrak eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

- Harremanak Administrazioarekin: dirulaguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.

Ahozkoari dagokionez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki haurrekin egiten direnetan aritzen direnek, bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.

Elkarteek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.



Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

g) Berdintasunerako klausula: Dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koa, ezarritako oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako. Baita 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, ezarritakoak.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexistak erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexistak saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol era genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

h) Ingurumenaren alorreko klausula: Dirulaguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezteak (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehienezko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Paperezko euskarrian Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, % 100ean birziklaturiko papera izango da, batera klororik gabekoa, eta bi aldeetatik inprimatuta.

i) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irradi, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Errenteriako Udalaren lankidetzak, esaldi honen arabera: "Errenteriako Udalaren laguntzarekin". Esaldi hori Herribilduaren armarrira gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Errenteriako Udala denean, hala nola babesak beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken kasu honetan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

i) Onuradunak, proiektua gauzatzeko, 15.000 euro edo gehiagoko zerbitzuak edo hornidurak kontratatzen dituztenean (BEZik gabe) gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen. Nolanahi ere, salbuetsita geratuko dira, zerbitzu edo horniduraren ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan zerbitzu hori hornitzen edo ematen duten nahikoa erakunde ez badago, edo gastua egin bada dirulaguntza eskatu aurretik.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa (justifikatzeko dokumentazioarekin batera ekarri beharko dena) eraginkortasun eta ekonomiako irizpideen arabera egingo da; eta, proposamen ekonomikorik onena hautatu ez bada, memoria batean berriaz justifikatu beharko da erabakia.

i) Bete beharko da une oro indarrean dagoen araudia, COVID19arekin kutsatzeak ekidite aldera. Araudi hori era zorrotzean bete beharko da bai ekitaldi publikoetan, baita bileretan edo publikoarentzat irekiak ez diren jardueretan ere.

#### **Seigarrena: Dirulaguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa.**

Errenteriako Udalak, Hezkuntza azpisaileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta dirulaguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.



Dirulaguntzaren entitate onuradunak, 2022ko urtarrilaren 31a baino lehen, Udalean aurkeztu beharko du dirulaguntzak xede duen proiektu/jardueren garapenaren memoria bat. Bertan buruturiko jardueren azalpen memoria bat egingo da, izaniko diru-sarreraren eta gastuen balantzea barne, hala nola egindako gastuak justifikatzeko ordain-agirien edo dokumentuen kopia bat.

COVID19arekin kutsatzeak ekidite aldera, proiektuan aurreikusitako jardueraren bat ezin izan bada gauzatu edo egokitu beharra egon bada, memorian horrela azalduko da, erabaki horren arrazoiak zehaztuz.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, dirulaguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako dirulaguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

Dirulaguntza jasotzen duen entitate hartzaileak, memoriaz gain, aurkeztu beharko du CD bat programaren eta jardueren argazkiekin (argazki bakoitzari zein jarduera edo programa dagokion adierazi beharko da), hala nola hedapenerako erabiliriko euskarri guztiak.

Justifikazioan sartu ahal izango dira elkarte onuradunaren egituraren mantenuko gastuak (zeharkako gastuak) giza baliabideen gastuak barne.

Pertsonal gastuak dira salarioari lotutakoak (IRPF delakoari dagokion atxikipena barne) eta soldata gastu hauei dagokien Segurtasun Sozialaren enpresa kuota. Hau honela izanik, berezko pertsonalaren nominak atxikitu beharko dira, dagozkien justifikanteekin batera eta IRPF atxikipenei lotutako diru sarrera baieztatzen duten agiriak. Baita kotizazio likidazioaren errezeptioa (RLC delakoa) eta langileriaren izen-abizenen zerrenda.

#### **Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste dirulaguntza publikoekin.**

Hitzarmen honek arautzen duen dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, dirulaguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Errenteriako Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako dirulaguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo dirulaguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek dirulaguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan dirulaguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

#### **Zortzigarrena: Hitzarmenaren baldintzak aldatzea.**

Dirulaguntzaren entitate onuradunak Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, hitzarmen hau aldatzea ezarritako epeak zabaltzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan



gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Jardueraren aldaketa edo atzeratzea COVID19arekin kutsatzea ekiditea asmo duen araudiaren ondorio izatekotan, nahikoa izango da erabakia posta elektronikoz dirulaguntza eman duen udal sailari jakinaraztearekin, seigarren klausulan jasotakoa kontuan izan behar bada ere.

Udalak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

**Bederatzigarrena: Hitzarmena ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea.**

Dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du dirulaguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzaren 23. eta 37. artikuluetan eta Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arazoak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

**Hamargarrena: datu pertsonalak babestea.**

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa betetzea

**Hamaikagarrena: Lan arriskuen prebentzioa.**

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

**Hamabigarrena: Araubide Juridikoa.**

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrearen Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015



Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

**Hamahirugarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa.**

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena.

<p><b>HEZKUNTZA AZPISAILAREN ZINEGOTZI ORDEZKARIA</b></p>	<p><b>OINHERRI ELKARTEAREN ORDEZKARIA</b></p> <p><b>44341768E</b> Firmado digitalmente por 44341768E <b>AMAIA</b> AMAIA ETXABE (R: <b>ETXABE (R:</b> G75237701) <b>G75237701)</b> Fecha: 2021.06.04 16:17:43 +02'00'</p>
<p>Stua.: ITZIAR OSTOLAZA GALDOS</p>	<p>Stua.: Amaia ETXABE GOIKOETXEA</p>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:** Oinherri - 2021 Hitzarmena

Data / Fecha: 2021/06/02 09:31:59

Sinatzailea 1 / Firmante 1: ITZIAR OSTOLAZA GALDOS

